



Lectio divina

1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Denek dute itxaropena. Pertsona ororen bihotzean pizten da itxaropena, dena ongi gertatuko deneko nahia eta esperantza. Zertan edota norengan duzu itxaropena bizitza honetan? Norengan edota zertan jartzen dut neure itxaropena?
- ✓ Itxaropena berpizteko arrazoiak aurkitzen lagun digu Jainkoaren Hitzak. Ohartu al zara zein diren arrazoi horiek? Laguntzen al dizu zeure bizitzako esperientziak arrazoi horiek baiesten?
- ✓ Espiritu Santuak argitzen du fededunen itxaropena. Jabetua al nago Espiritua neure baitan dudala, neure bizitzan? Ematen al dizkiot eskerrak Jainkoari bataiokoan eman zidan dohainagatik?
- ✓ Kristau itxaropenak ez du engainatzen, ez huts egiten, bai baitaki ez gaituela inork ere aldenduko inoiz Jainkoaren maitasunetik. Eguneroko bizitzan konbentzita al nago ni horretaz? Zerk eragozten dit neure konfiantza Maitasun horretan jartzea?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Eska diezaiogun Jaunari emateko sinesmen eta itxaropen gero eta sakonagoa, gardenagoa, iraunkorragoa eta sendoagoa. «Betor gurekin, Jauna, zure maitasun leiala, Zuregan jarraia baitugu esperantza!» (Sal 33, 22).

Ageriko euskarririk gabe ere, Jainko Aitaren eskuetan fidaturik bizi nahi dugu, bere herrien eta seme-alaben etorkizuna ziurtatuko baitu beti. Bai, itxaropenak ez du huts egiten. «Sinesten dut! Lagundu sinesgabe honi» (Mk 9, 24).

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Bataiokoan hartu duen dohain handiaz jabetzean, kristauaren bizitza Jainkoarekiko leialtasun-bidean baizik ezin da ibili, pozkarioz eta ausarki, nahiz "ibar beltz-ilunetan ibili" (Sal 23, 4).

JAINKOA^{GAN}
JARTZEN
DUT NITZE
ITXAROPENA
Hitzarekin
topatuz

I. fitxa, Ern 5. I-II

ITXAROPENAK
EZ DU HUTS EGITEN



Donostiako
Gotzaindegia
Obispado de
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN
URTEURRISMA
ANNIVERSARIO



Erm 5, 1-11

¹ Beraz, Jainkoak sinemenaren bidez onartu gaituelarik, bakean gaude berarekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. ² Berari esker, sinemenaren bidez eman digu Jainkoak bere onginahia geureganatzea. Egoera honetan sendo irauten dugu eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugulako itxaropenez. ³ Eta ez hori bakarrik, harro gaude atsekabez ere; bai baitakigu atsekabeak eroapena duela ondorio; ⁴ eroapenak probaldia gainditzeko gai egiten gaituela, eta probaldia gainditzeak itxaropena sendotu egiten duela; ⁵ eta itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu geure bihotzetara, berak emandako Espiritu Santuaren bitartez. ⁶ Izan ere, oraindik bekatupean indargabe ginela, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen Kristo.⁷ Nekez hilko litzateke norbait pertsona zuzen baten alde; agian bai, badaiteke norbait pertsona on baten alde hiltzeko prest egotea. ⁸ Baina Kristo, gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna. ⁹orain, Jainkoak Kristoren odolaz onartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez! ¹⁰ Zeren eta, etsai ginelarik, Jainkoak bere Semearen heriotzari esker berekin baketu bagintuen, behin baketuz gero, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko beraren biziaz! ¹¹Are gehiago, Jainkoaz harro gaude Jesu Kristo gure Jaunari esker, beronen bitartez Jainkoarekin baketzea iritsi baitugu dagoeneko.



Testua ulertzeko

- ✓ «Spes non confundit», «Itxaropenak ez du huts egiten». Itxaropena aipatuz, kemena bizkortu nahi zion Paulo apostoluak Erromako elkar-teari.
- ✓ Denek dute itxaropena. Pertsona ororen bihotzean pizten da itxaropena, dena ongi gertatuko deneko nahia eta esperantza, nahiz jakin ez biharko egunak zer ekarriko dion. Hala ere, geroan zer gertatuko den aurrez jakin ezinak sentipen kontrajarriak pizten ditu maiz: konfiantza eta beldurra, lasaitasuna eta etsipena, ziurtasuna eta zalantza. Maiz aurkitzen ditugu etsiak dauden pertsonak, etorkizunari eszeptiko eta ezkor begiratzen dioten pertsonak, zoriona ezerk ere ekar diezaikeen uste ez duten pertsonak. Itxaropena berpizteko arrazoiak aurkitzen lagun digu Jainkoaren Hitzak.
- ✓ Maitasunetik sortzen da itxaropena eta Jesus gurutziltzatuaren bihotz zulatuari darion maitasunean oinarritzen da. (Erm 5, 10). Bataiokoan

hasi genuen fede-bizitzan agertzen da itxaropena bizirik. Jainkoaren graziari otzan erantzunez garatzen da, esperantzak bizkorturik. Espiritu Santuaren eraginak berriztatzen du beti eta hautsezin egiten. Espiritu Santuak argitzen du fededunen itxaropena. Espirituak iraunarazten dio beti izekirik, pizturik, inoiz itzaltzen ez den zuzia bezala, gure bizitza babesteko eta indartzeko.

- ✓ Kristau itxaropenak ez du engainatzen, ez huts egiten, bai baitaki ez gaituela inork ere aldenduko inoiz Jainkoaren maitasunetik (Erm 8, 35. 37-39). Horra zergatik ez duen itxaropenak etsitzen zailtasunen aurrean: sinemenean oinarritzen delako eta maitasunez janaritzen, eta horrela ematen digu bizitzan aurrera egin ahal izatea.
- ✓ San Paulok ongi ezagutzen du bizitza; badaki pozak eta atsekabeak dituela, zailtasunak handitzen direnean probatzen dela maitasuna, sufrimendua etortzean itxaropenak itxuraz porrot egiten duenean (Erm 5, 3-4). Hala ere, ilunaren erdian argia begiztatzen da; Kristoren gurutzeari eta piztuerari darion indarra dela ebanjelizazioen euskarria.
- ✓ Eta horrek, itxaropenarekin zerikusi handia duen bertutea garatzen du: pazientzia. Dena nahi izaten dugu eta berehala, gainera. Halaxe ohituak gaude, presaka bizi den mundu honetan. Kreatzioari miresmenez begiratzeko oraindik ere gauza bagina, pazientiaren izatea zer den ulertuko genuke. Pazientzia du Jainkoak gurekin, zeren “Jainko iraunkor eta kontsolatzailea” baita.



- ✓ Jainkoaren graziak ematen digun itxaropenaz gainera, Jainkoak eskaintzen dizkigun aldian aldiko zantzueta ere itxaropena bilatzera deitua gera. Munduan den ongia arretaz ikusten saiatu beharra dugu, baldin gaiztakeriak eta bortxakeriak mendean hartu gaituela uste izateko tentazioan erori nahi ez badugu. Hari honetan, itxaropen-seinale edo zantzu bihurtu behar ditugu aldian aldiko zantzuak, giza bihotzak duen irrika berekin baitute, Jainkoaren presentzia salbatzailearen beharrean dagoen giza bihotzaren irrika, alegia.